

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LUZURIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko aldiari ordaintzeko moduan jartzea 2018ko ordainagiriak**

Behin eginik Luzuriagan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2018ko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliaduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertze eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Luzuriagako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, zergen foru arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko aldiari ordaintzeko epea 2019ko martxoaren 7an hasi eta apirilaren 7an bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko apirilaren 7an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Luzuriagako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekguarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Luzuriaga, 2019ko otsailaren 4a

*Lehendakaria*

*JUAN CARLOS ARRIAGA GARCÍA DE ALBÉNIZ*